

Maitane Nerekan Umaran

## Xamurtasun sendoa

Ashram batetik idatzi dizkizut lerro hauek, Nafarroako lurretatik. Yoga erretiro batean murgildurik, Tafallatik kilometro gutxira heldu zait enkargu honi hitzak jartzeko behar nuen argitasuna. Suryanammaskar, raja pranayama, Mahamudra..., eta hara non Arantzazura heldu naitzen. Euskaldunok bide asko ibili behar ditugu oraindik gure herri jakintza elikatu eta osatzeko. Euskal pentsamenduaren ur-jauzia tantaz tanta osatzen dugu, solasaldiz solasaldi, bakoitzak elikagai dituen tenplu ateo, pagano zein bestelakoetatik, bakoitza bere erritualaren eta arrazoimenaren dantzan. Pazientziaz, komunitatean eta xamurtasunez.

Azken hori izan da zure eskoletatik gehien oroitzen dudana. Zure xamurtasun sendoa. Eskola egun batean heldu zitzaigun *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren berri, eta xamurtasun sendo horrekin partekatatu zenuen gurekin zure beldurra eta ezinegona. Bortizkeriaz bortxatuak izaten ari ziren lagunengatik zein herri-proiektuengatik sentitzen zenuena. Sekula ez ditut egun horiek ahaztuko, eragin handia izan baitzuten nintzen *gazte ero* horren hautu politiko bezain intimoetan. Hasteko, munduari euskaratik begiratzeko hautua kontzienteago egiten lagundu zidalako.

Hauskortasun sendoa dario zure pentsamenduari, eta hori islatzen zenuen zure irakasle lanean. Horkheimerri buruz emandako saioan ulertzen hasi nintzen filosofia plazer iturri izan zitekeela pazientziaz eta komunitatean s(j)olastuz gero. Bide horretan sakontzea dagokigu orain euskal pentsamendua tantaz tanta elikatzen jarraitu behar dela sinisten dugunoi. Euskaratik, pazientziaz, xamurtasunez eta komunitatean.

Zure lanaren oparotasuna, Herria ulertzeko emandako kontzeptualizazioa, zure pentsamenduaren adarkatze infinitua, begirada kritikoa-ren zorroztasuna... Alderdi asko azpimarra litezke utzi duzun herentzia eskuzabal horretatik. Hala ere, zure begiradaren xamurtasun sendoa

azpimarratuko nuke. Euskal Herria xamurtasunez begiratzeko, sendotasun handia behar baitugu euskal *gizabere*txook, eta ez da erraza horiek biak (xamurtasuna eta sendotasuna) elegantziaz harilkatzea.

On egin diezaiela gure ikastetxeetako hormen artean ‘gauzak pentsatu’ beharrean ‘gauzak pentsarazteaz’ s(j)olastuko diren irakasle zein ikasleei. Ur-jauziarentzako emari garrantzitsua izan da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Curriculumean zure lanaren lagin txiki bat islatu ahal izatea, eta zorioneko sentitzen naiz horretan parte izateagatik. Euskal Herri osoko geletara hel dadin, badugu ardura oraindik ere. Zuk aldarrikatutako *kultura demokratikoa* ikastetxeetatik elikatzeko, euskal irakasleok badugu konpromisoa eta horri heltzea dagokigu, curriculum eta hezkuntza lege arrotzak direnak direla. Goazen gure nazioa, gorputzak zein identitateak bortxatzen dituzten dikotomia faltsuak deserosotzera.

Zorionekoak gara zure ur-jauzian tantak diren euskal pentsalari handiek Herria egiten jarraitzen dutelako, euskal pentsamendu feministatik, adibidez. Baditugulako akademian zein herriko tabernetan komunitatean eta euskaratik pentsatzen jarraitu ahal izateko zabaldu diren espazio berriak, kafe/pote filosofikoetan, Katedran, udako ikastaroetan. Gure Arantzazu txikiak. Goazen euskal erreketako uretan freskatzera, Zegamatik Tafallara, Getxotik Arantzazura, euskal pentsamenduak busti gaitzan. Eskerrik asko, Joxe.